

MUSIKA ELKARTEAK (I)

(Musika irakaslea izateko enborreko ikasgaia)

2. maila, 1.go lauhilabetea

HELBURUAK

- Musika-egitura desberdinen soinu-possibilitateak ezagutzea eta esperimintatzea.
- Soinuaren inguruko ikerketa bultzatzea.
- Orffek sortutako instrumentu eta material didaktikoen tinbre-aukerez ohartzea eta esperimintatzea.
- Orff-instrumentuak jotzeko teknika eta inprobisatzeko aukerak ezagutzea eta garatzea.
- Eskolako musika talde desberdinak eta beren didaktika ezagutzea.
- Taldean jotzeko gaitasunak garatzea.
- Gelan dauden musika tresnak erabiliz moldaketa txikiak sortu eta saioak egitea.
- Eskolako ziklo ezberdinetarako egokiak diren instrumentu-muntaiak gauzatzea.
- Musika-taldeak zuzentzeko oinarrizko gaitasunak lantzea.
- Eskolako taldeak era egokian antolatzen ikastea.
- Egoera bakoitzean egokia den errepertorioa aukeratzeko irizpideak ezagutzea.
- Gelan musika elkarteekin lan egiteko lagungarriak izan daitezken errekurtsioak ezagutzea (CDak, bideo/DVDak, ordenagailuen programak, liburuak, eta abar).

GAIK

1. SOINUAREN ESPLORAZIO ETA IKERKETA

Soinu-egiturak. Soinua giza ahotsean, musika-tresnetan eta efektu-tresna eta osagarrietan.

2. ESKOLAKO MUSIKA-TALDEAK

Orff-instrumentuen soinua eta ezaugarri teknikoak. Ahotsa eta musika-tresnen aldibereotasuna. Eskolako didaktikari egokitutako musika-talde motak. Musika-tresnen zainketa.

3. ESKOLARAKO MUSIKA INSTRUMENTALAREN SORKUNTZA

Testuen erritmo eta soinua. Testu, dantza eta antzezpenetarako tresna-akonpainamenduak egitea. Doinu ezberdinen ezaugarriak kontuan hartuta instrumentu-laguntzak egitea. Ipuin musikalak sortzea.

METODOLOGIA

- Artikuluen irakurketa eta eztabaida.
- Orff-instrumentuetarako harmonizatuta dauden konposizio errazak taldean jo, ahotsa, moko-txirula edota gorputz-perkusioa ere erabiliz.
- Soinu-grabaketan laguntzarekin pieza desberdinak jo.
- Melodia errazak konpondu eta harmonizatu Orff-instrumentuetan jotzeko, oinarrizko arau harmonikoak eta joko duten ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz.
- Inprobisazio ariketak.
- Ipuin musikak, dantza, modako abesti eta abarretarako instrumentazioa sortu.
- Zuzendariaren postua txandakatu.

LANAK

Zenbaitetan Ikasgaiaren alde praktikoa indartzeko, azken notarako baliagarriak izango diren ekintza eta lan txikiak eskatuko dira.

Honez gain, matrikulatuta dauden **ikasle guztiek lan bat egin eta beste kideen aurrean aurkeztu beharko dute**. Gaia eta edukiak irakaslearekin zehaztu behar dira prestatu eta aurkeztu baino lehen. Hauek dira egin daitezkeen lan batzuk:

- Ipuin musikal bat sortu.
- Dantza bat antolatu, eskolako ziklo baterako egokia den instrumentazioa sortuz.
- Modan dagoen *abesti* bat edo musikaren historiako edozein arotako konposizio ba instrumentatu.
- ...

Lan guztietan orientabide didaktikoak eta eskolan praktikara eramateko beharrezkoak diren azalpen eta zehaztasun guztiak agertuko dira (helburuak, zein adinetako eta ezaugarrietako ikasleentzat den, taldearen antolakuntza, metodologia...).

Lanak lau edo bost pertsonako taldeetan egingo dira. Aurkezteko orduan sortutako ipuina, dantza, instrumentazioa... praktikara eraman eta orientabide didaktikoak azaldu egingo dira. Aurkezpena irakasleak esandako egunean egingo da, baina posible da aldeztatik zirriborroak entregatzea lana bukatu baino lehen ondo doala ziurtatzeko.

EBALUAZIOA

Ikasgaiaren atal bakoitzak ematen du azken notaren zati bat: teoriak %20; alde praktikoa %50; lanak %30.

- **Atal teorikoaren** ebaluapena ikasturtean zehar azaldutako edukiei buruzko proba baten bidez egingo da.
- **Atal praktikoa**ren nota jartzeko klaseetan parte-hartzea eta eskatutako ariketak egitea baloratuko da. Honez gain, bi zati izango dituen proba bat egingo da bukaeran: partitura baten harmonizazioa, klasean azaldutako irizpideak eta zein hezkuntza-mailatako ikasleentzat izango den kontuan hartuz, eta klasean landutako pieza batzuen interpretazioa.
- **Lanaren nota** jartzeko idatzita ematen den lana eta ikaskideen aurrean egiten den aurkezpena hartuko da kontuan.

Ikasgaia gainditzeko beharrezkoa da aipatutako **atal guztiak** gainditzea.